

ESTRADIZIOAK. Espainiako Ministro Kontseiluak atzo egin zuen estradizio eskaera

Zaldua aske utzi du Frantziak, estradizioa epez kanpo eskatzeagatik

Irantzu Gallastegi Espainiaren esku utziko dute behin-behinean, lau sumariotan epaitzeko

Erredakzioa | BAIONA

Jose Maria Zaldua Korta *Aitona* urretxuarra libre gelditu zen atzo, Espainiak ez zuelako estradiziorik egin Frantziako legeak arautzen duen epean. Frantziako Poliziak Ziburuko bi irakasleren etxean atxilotu zuen Zaldua. Etxekoak berehala gelditu ziren libre. Oraindik ez dago argi Zalduak Ipar Euskal Herrian bizitzeko eskubidea duen edo debekatu dioten, baina litekeena da Lapurdira joatea, han baitaizka emaztea eta haurra.

Espainiako Gobernuako Ministroen Kontseiluak, hain zuzen ere, Jose Mari Zalduaren estradizioa eskatu zuen atzo. Horrez gain, Antxon Sasiain Rodriguez, Juan Ramon Carasatorre Aldaz eta Jose Luis Urrusolo Sistiagaren estradizioak ere eskatzea erabaki zuen atzo.

Gallastegiren behin-behineko estradizioa onartu dute

Frantziak Irantzu Gallastegiren behin-behineko estradizioa onartu du. Gallastegi oraindik Frantzian badago ere, Espainiako Auzitegiaren esku utziko duten bosgarren euskal presoak izanen da. Espainiak sei hilabete epea eskatu zuen Gallastegi epaitzeko.


Espainiak epe hori eskatu

OLANO AUZIA

Garzonek beste txosten bat helarazi du

Baltasar Garzon epaileak Paueko auzitegiak eskatu informazio gehigarriak helarazi ditu, Juan Mari Olano AABetako arduradunaren estradizio eskaeraren inguruan. Paueko auzitegiak ez zuen erabakirik hartu estradizio auzian, eta informazio gehiago eskatu zuen, batez ere leporatzen zaizkion delituak «non eta noiz» egin zituen argitzeko.

Jon Enparantza abokatuak EGUNKARIARI azaldu dionaren arabera, informazio horrek ez du Paueko auzitegiak eskatu xehetasunik ematen. Olanok AABetako ardurak 90eko hamarkadan hartu eta 2001eko urria arte izan zituela dio Gar-



EGUNKARIA
Juan Mari Olano.

zonen informazioak, bertze zehaztasunik gabe. Gainera, informazio gehigarri horretan «ez du zehazten delitua zein den».

Garzonek Paueko epaileei igorri dien txostena «Poliziarrena» dela gehitu zuen Enpa-

rantzak. UCiren txostena da agertzen dena. Orain arte, Olanoren estradizio eskaerari ez zioten txosten hori gehitua.

Juan Mari Olano berriz pasatuko da Paueko auzitegitik datorren asteartean. Batetik, askatasun eskaera aztertuko dute, eta, bertzetik, informazio berriak eskuraturik, estradizio auzia berriz hasiko da. Abokatuak auziaren gibelatzea eskatuko dute, informazio gehigarria berriki heldu zaielako. Horrez gain, defentsak kasazio gortean errekurtsioa pausatu zuen lehen auziaren inguruan. Kasazio gortean ez du oraindik erabakirik eman. Hain segur, ekainaren bukaeran jakinaraziko du errekurtsioa atzera botatzen duen ala ez.

Enparantza nahiko ezkor agertu zen auziari begira. «Pentsatzen dut informazioa nahikotzat joko dutela. Onartezina da».

badu ere, Frantziak oraindik ez du zehaztu behin-behineko estradizioaren epea. Gallastegik sei urteko espetxe zigorra bete behar ditu Frantzian.

Espainiak lau sumariotan auzipetuko du Gallastegi: Fernando Mugika Herzogen kontrako atentatua, Jose Maria Lobato Femia bizkartzainaren kontra-

ko atentatua eta Albino Alfredo Machado poliziaren kontrako. Horrez gain, Donostia taldeko kidea izateagatik epaituko dute Gallastegi.

FORUM IBILTARIA. Euskara alorreko eragileei 'Euskal Herria Eraikitzen' txostena banatu diete

Euskararen «duintasuna» berreskuratzeko prest azaldu da Batasuna



Batasuneko ordezkari Joseba Permach eta Anjel Mari Elkano euskalgintza alorreko eragileen ordezkariekin bildu ziren atzo. Euskal Herria beste esparru batera eramateko *Euskal Herria Eraikitzen* izeneko proposamenaren berri eman zien Kontseilua, UEMA, EHE, AEK eta Oinarriak taldeetako kideei. Bilkuran, bat etorri ziren euskararen diagnostikoa egitean: euskararen egoera «zaila» dela eta etorkizunean ere «garai gogorak» etorriko direla ondorioztatu zuten. Euskara «ofizialtasunera eta normalizaziora eramango duen prozesu baten beharra» nabarmendu zuten, eta etorkizunean euskararen «duintasuna» berreskuratzeko konpromisoa azaldu zuten.

ERREFUXIATUAK

Bittor Galartza atxilotu dute Venezuelan

Erredakzioa | DONOSTIA

Bittor Galartza Mendieta iheslaria atxilotu zuten atzo goizean Venezuelan, Caraboboko estatuan. Errefuxiatu hori Larrabetzuko (Bizkaia) da, baina Venezuelan bizi da, eta paperak ondo ditu. Galartza 08:30ean atxilotu zuten, emaztearekin etxetik lanera zihoala. Gero Disip egoitzara, inteligentzia zerbitzuen egoitzara eraman zuten, berri agentziek kaleratu zuten.

Espainiak sei errefuxiatuaren kontrako estradizio eskaera egin zuen duela urte batzuk, eta hasieran berri agentziek adierazi zuten horietako bat Galartza dela, baina gero gertzuratu zuten. Eugenio Barrutiabengoa, Miguel Angel Aldana, Jose Aiestaran, Jesus Ricardo Urteaga, Koldo Olalde eta Jose Martin dira estradizio eskaera duten iheslariak. Espainiak ez du Galartzaren kontrako estradiziorik eskatu orain arte; beraz, ez dago argi zergatik atxilotu duten.

BIKTIMAK

Biktima guztiei kalte-ordaina emateko eskatu dio Madrili Eusko Legebiltzarrak

Erredakzioa | BILBO

Eusko Legebiltzarrak ETaren indarkeria eta Estatuaren zein beste edozein talderen indarkeria «parekatzeko» eskatu dio Madrillgo gobernuari. 1968 eta 1978 bitarteko ekintzen biktimek orain arte ukatu zaien biktima izendapena jaso eta dagoen kalte-ordaina emateko eskatu du.

EAJ, EA eta IU-EBk aurkezturiko proposamenak PSEren babesa eta Alderdi Popularraren ezezkoa izan zuen. Batasunak ez zuen bozkatu. Proposamenaren sustatzaileak Auzitegi Nazionalak Norma Mentxaka santurtziarraren auzian emaniko epaian oinarritzen dira eskaera egiteko.